

VOZ OFF: SARRERA

Ahaide Nagusien arteko borroka Erdi Aroaren bukaerako gertakizunik aipagarriena izan zen Euskal Herrian. Leinuen arteko gatazka odoltsu haren arrazoiak ugariak izan ziren: jauntxoek gizartearen krisialdia, gaztelarren eta nafarren arteko areriotasuna, Gipuzkoako lurrez jabetu nahi izatea eta hiribildu berriak sortu eta indartzea, besteak beste.

Gipuzkoako ahaide nagusiengandik eta nafar liskartsuengandik babesteko nekazaritza-eremuko hainbat herrik hiribilduekin bat egiteko prozesuari ekin zioten.

Horrela Legazpiko haranaz gain, Zerain, Ormaiztegi, Astigarreta, Gudurreta, Idiazabal, Mutiloa eta Zegama herriak ere Segurari atxiki zitzaizkion 1384. urtearen hasieran. Honen ondorioz Segurak "bere eskumeneko jabegoa" zabaldu eta finkatzea lortu zuen eta horrekin batera, zerga-ordaintzaileen kopuruak gora egitea.

1go ESZENA: ANEXIOA

- **ALGOAZILA** : *(Herriko kanpaiak. Bilera deia.)*

Bandoa

Honen bidez Legazpiko herritarrei hots egiten dizuegu plazako harrizko etxearen aurrean egingo dugun batzarrerara. Bertan, Segurarekin bat egiteko hitzarmena sinatuko dugu.

Izenpetua : Juan Perez Segurakoa. Zinpekoa

(Herritarrak hurbiltzen hasten dira. Ekitaldia hastera doa)

(Eszena tokian: Pedro Ibañez Larrestegiko esribauak, banan bana deitzen ditu: Legazpiko zinpekoa, Segurako alkatea, Martin Miguelez apaiza eta Juan Lazkano, Segurako erregidorea).

Diego Gartzia Elortzakoa: *(eskribaua)*.- Hauek dira bat-egiteko ezarri ditugun baldintzak:

- Legazpiko bizilagunek Segurako hiribilduari lagundu beharko diote zergak ordaintzen.
- Segurak Legazpiko harana babestu eta defenditzeko konpromisoa hartuko du eta legazpiarrak Segurako alkatearen babespean egongo dira. Azken honek epaituko ditu auzi kriminal, zibil eta, oro har, kontu guztietan.
- Legazpiarrek zinpekoa hautatu ahal izango dute orain arte bezala.
- Segurako zerga banaketetan Legazpiko zinpekoak hartuko du.
- Legazpiko bizilagunek Segurako ordenantzak eta aginduak bete beharko dituzte.
- Legazpik ezingo du beste edozein Jaun, Andre, hiribidu edo herrixkekin elkartu edo konfederatu inolako hitzarmenen bitartez.
- Legazpiko ondasun, mendi, lur, kortabaso, ur, soro eta larre guztiek herritarrenak izaten jarraituko dute, haiekin nahi dutena egin dezaten, Segurak ezertan ere sartu gabe.

Horrela sinatzen dugu Legazpin plazako harrizko etxearen aurrean 1384ko otsailaren 28an.

VOZ OFF

1397 eta 1608 urte bitartean hainbat arrazoiengatik ia etengabeak izan ziren Legazpi eta Seguraren arteko liskarrak. Horien artean aipagarria da 1397ko irailaren 7an gertatu zena. Zerga mota bat ordaintzen ez zutelako Segurako 300 gizon burdinez armaturik Legazpin sartu ziren, bertako gizonezkoak bahitzeko asmoz. Jendeak zalapartaka mendietara alde egin zuenez, 196 abere eraman zituzten ordainetan.

Baina asko ziren legazpiarren kexen arrazoiak:

- Segurarren etxeak konpondu behar zituztela.
- Segurako kontsejuaren atezaina eta hiriaren zaintzaileak ordaindu behar zituztela.
- Segurako alkatea Legazpira etortzen zenean dozena bat gizonek laguntzen ziotela eta guztiei soldata eta bazkaria ordaindu behar zizkietela.
- Seguran egiten ziren errege-erreginen hiletak ordaindu behar zituztela.
- Segurako espetxea konpontzera behartzen zituztela.
- Seguratik Sandratira bitarteko bidea konpontzera behartzen zituztela.
- Ez zietela Biozkornako bidea erabiltzen uzten.
- Armen alardeak egitera Segurara joan behar zutela.
- Eta abar, eta abar.

Jakina, legazpiarrek behin baino gehiagotan kontu horien guztien kontrako protestak egin zituzten.

2. ESZENA: JUSTIZIA BIDEGABEA

Korregidorea: Legazpiarrek, gauzak horrela, onena dugu gure kexak erregeari jakinaraztea. Eskribau Jaunak zuen kexak jasoko ditu.

Eskribaua: Zinpeko jauna, zer diozu honetaz?

Zinpekoa: Legazpiarrok, nahiz eta Biltzar Nagusietan eta Partikularretan ordezkariarik ez izan, gastuetarako dirua jarri beharra daukagu eta Segurarrak dira ordezkari guztiak.

Eskribaua: Oso ondo, ea ba, bukatu baduzu, hurrengo pasa dadila.

Apaiza: Segurako zinpekoak arrazoirik gabe bost legazpiar atxilotu zituen, Seguran ospatutako Felipe II.aren hileta elizkizunetara ez joateagatik. Zinpekoak ez zuen kontuan hartu Legazpiko eliza nagusian egin genuen ospakizuna. Sei fraide, kanpoko bi apaiz eta ni neuk eman genuen meza.

Olagizona: Guk orain arte Biozkornako bidea erabili izan dugu burdina Arabara eramateko. Baina segurarrek oztopoak jartzen dizkigute bide horretan zangak zabalduz eta hesiak ezarriz. Seguratik

igarotzea nahi dute eta, modu horretan, askoz gehiago ibili behar dugu eta bide-saria ordaindu behar dugu.

Eskribaua: Ondo da, dena idatzi dut, (karta sinatu eta lakratzen du) zuek esan bezala. Erregeari bidaliko diogu berehala.

VOZ OFF

Gauzak horrela, eta hango hika eta hemengo mika, Segura eta Legazpiren arteko elkarbizitza laino beltzez estali zen.

Legazpiko Haranaren eta Segurako hiribilduaren arteko gatazkak ez zuen konponbiderik eta hitzarmena kolokan zegoen.

Legazpiko Harana lehenengoa izan zen Segurako eskumen-esparruan eta probintzian desanexioa eskatzen eta, handik urte batzuetara, "berezko herri" titulua lortzen. Eta hori bi arrazoirengatik gertatu zen, bat "ezkutuan eta tentu handiz" mugitu zirelako, eta bi, Erregearen ogasunak kiebra jota zegoelako. Horrela, herritar bakoitzeko 20 dukat ordaindu behar izan zituzten eta bi eskribautzengatik 300 dukat, garai hartako kopuru handia, dudarik gabe.

Bestalde, Legazpiko Haranak Biltzar Nagusiaren gehiengoaren babesa eskuratu zuen, Donostiako hiribilduak ordura arteko jokaera aldatu zuelako. Hiribildu nagusiak desegitean Donostia Gipuzkoako hiririk garrantzitsuena izatera pasa zen.

3. ESZENA: DESANEXIOA

Zinpekoak: *(oihuka)* Erregearen gutuna iritsi da!!!! Herritarrak hurbildu zaitezte!!!!,..

Herritar batek: Ba zen garaia, horratio. Azkenean zerbaite badugu.

Beste batek: Bizkor, goazen, goazen ea zer dioen.

(Zinpekoak eskutitzak eskribauari ematen dio).

Eskribauak: *(irakurtzen hasten da parsimonia handiz)*

Ogasun Kontseilariak izendatutako ordezkaria naizen honek zera agintzen dut:

Kontsejuko lanbideak aukeratu ditzazuela; alkateari agintemakila eman diezaiozuela; eta udal-barrutia eta ondareak zehaztu ditzazuela.

Gainera, Segurako kontzejuak, ebatzi ez dituen auziak alkate berriari igorri beharko dizkio.

Hiribildu berrian urkamendi, zepo eta zartaila jarriko dira, barruti-ezaugarri gisa

Eta gaurtik aurrera Segurako hiribilduari Legazpiko barrutian esku hartzea debekatzen diogu.

Eta hau bete dadin sinatzen dut Valladolideko Kantzilertzako Entzule den Pedro Sanchez Collado doktoreak.

Herritarrak algaraka, kanpaiak joka,...

VOZ OFF Amaiera

1608ko urriaren 4an Kontsejuko karguen hautaketa ofiziala egin zen herri bihurtutako Legazpin, eta Martin Zabaleta herritarrak jaso zuen lehenengoz aginte-makila.

Segurak erabaki horren kontra gogor egin bazuen ere, hango eta hemengo bazterrak nahastuz, 1613ko uztailaren 27an Legazpik azkenean askatasun agiria jaso zuen.